



Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen saila.
Herritarren Partaidetzarako zerbitzua

Departamento de Gobierno Abierto y Centros Cívicos.
Servicio de Participación Ciudadana

Elkarteen Etxeetako erabilera eta bizikidetzara-arauek

Elkarteen Etxeak erabiltzen dituzten elkarteek berezkoak dituzten gizarte-, kultura- eta hezkuntza-jarduerak garatuko dituzte horietan, indarrean den legeriak eta erabilera-arauek ezarritako mugak kontuan hartuta.

1. Elkarten Etxetako ezaugarriak eta ordutegiak

- 1.1. Elkarten Etxeak Gasteizko Udalaren baliabide bat dira, elkarteak, fundazioak edo elkarten federazioak (aurrerantzean, elkarteak) sustatzeko eta indartzeko.
- 1.2. Elkarten Etxeek Gasteizko Udalari atxikitako mendekotasun publikoa dute beren helburuak betetzeko, baina horrek ez du eskubiderik sortzen erabiltzaileen alde.
- 1.3. Herritarren Partaidetza Zerbitzuari eskaera egin eta Elkarten Etxeetako erabiltzaile izateko onespina jaso duten elkarteek beren jarduerak garatzeko erabili ahal izango dituzte horiek, arau hauetan eta erabilera baimentzeko ebazpenean zehazten den moduan.
- 1.4. Elkarte bakoitzak areto bat izango du bere erabilerarako edo beste elkarte batzuekin batera erabiltzeko eta, aldi berean, areto komunak erabiltzeko eskubidea izango du. Beharrezkotzat jotzen diren moldaketak eta banaketak egingo dira lekuak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.
- 1.5. Elkarten Etxeetako ohiko ordutegia izango da 08:00etatik 24:00etara.

2. Lokalak erabiltzen dituzten elkarten eskumenak

- 2.1. Gasteizko Udalak Herritarren Partaidetza Zerbitzuaren bitartez lokala egoitza gisa erabiltzeko aukera ematen die elkarte esleipendunei.

Erabilera puntualeko gela komun kasuan, erreserba-eskaera agiri honbik zehazten duen moduan eta baldintzetan egiten duten elkarteak, kolektiboak eta plataformak erabili ahal izango dituzte.



**Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen saila.
Herritarren Partaidetzarako zerbitzua**

*Departamento de Gobierno Abierto y Centros Cívicos.
Servicio de Participación Ciudadana*

Gasteizko Udalak ez da izango horiek Elkarteen Etxeen barruan nahiz kanpoan garatzen dituzten jardueren erantzule.

- 2.2. Lokala erabiltzeko baimena eman, takila esleitu edo erabilera komuneko aretoetan sartzeko baimena jaso duten pertsonak edo elkarteek bakarrik erabili ahal izango dute lokala, eta ez beste inork. Era berean, ez da elkartearen zuzendaritza-organismoek eta Herritarren Partaidetza Zerbitzuak ikuskatu, sustatu eta garatu gabeko jarduerarik garatuko.
- 2.3. Herritarren Partaidetza Zerbitzuak lokal zehatzak esleituko dizkio elkarte esleipendun bakoitzari.

3. Egoitza eta takila esleitu zaizkien elkarteen betebeharrak

3.1. Elkarte esleipendunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Erreferentziazko ordezkari bat izendatzea, utzitako espaziori eta Elkarteen Etxeko gainerako leku guztiei dagokienez Herritarren Partaidetza Zerbitzuaren erreferentziazko teknikari batekin harremanetan jartzeko eta jarraipena egiteko.
- Herritarren Partaidetza Zerbitzuak edo elkarte esleipendun gehienek deitzen dituzten urteko ohiko bileretara eta bestelako bileretara joatea, besteak beste, Elkarteen Etxeen funtzionamenduari lotutako gaiak joratzeko.
- Hiru hilabetez, "Etxearen elkarte koordinatzaile" gisa jardutea. "Elkarte koordinatzailearen" eginkizunak eta txandak zehaztapena Elkarteen Etxeko lehen bileran adostuko dira.
- Bizikidetzako onerako arauak aztertzea. Oro har, Elkarteen Etxeko gainerako erabiltzaileei enbarazurik edo kalterik ez egiten saiatuko dira.
- Elkarteen Etxearen funtzionamendu egokia oztopa dezakeen gorabeherarik, anomaliarik eta/edo akatsik antzemanaz gero, Herritarren Partaidetza Zerbitzuari jakinaraztea.
- Udaletxeko Herritarren Partaidetza Zerbitzuari aldaketa oro (telefonoa, posta elektronikoa eta abar) eta harremanetarako pertsona jakinaraztea, baita utzitako espazioa erabiltzeko ordutegian eta egutegian egindako aldaketak ere.
- Herritarren Partaidetza Zerbitzuari laguntzea utzitako lokalen eta aurkeztutako proiektuaren jarraipena egiteko ezartzen den prozeduran.

3.2. Ezin da erre Elkarteen Etxeetan.



Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen saila. Herritarren Partaidetzarako zerbitzua

*Departamento de Gobierno Abierto y Centros Cívicos.
Servicio de Participación Ciudadana*

- 3.3. Elkarteek ezin izango dituzte erabili Elkarteen Etxeko aretoak ekintza ludiko-gastronomikoetarako.
- 3.4. Elkarte erabiltzaileek ezin izango dituzte erabili Elkarteen Etxeko aretoak elikagaiak, jantziak edo bestelakoak banatzeko.
- 3.5. Elkarteek ezin izango dituzte erabili Elkarteen Etxeko aretoak kultu eta erlijio-jardueretarako edo alderdi politikoei eta/edo sindikatuei sustatutako ekintzetarako.
- 3.6. Ezin izango dira eraso edo diskriminazio matxistak egin dibertsitate funtzionalagatik, jatorriagatik edo giza bazterketen aurka doan beste edozein alderditatik, Elkarteen Etxeetan edo Rosa Parks aretoan.
- 3.7. Txakurrak sartu ahal izango dira Itziar, Rogelia de Álvaro eta Simone de Beauvoir Elkarteen Etxeetan, baita Rosa Parks aretoan ere (autobus-geltokiko lehen solairuan).

Jarraian, horretarako arauak deskribatzen dira:

- Urtebetetik gorako txakurrak sartu ahal izango dira, osasun-kartilla eguneratuta badute eta behar bezala gizarteratuta badaude.
- Txakurrek lotuta egon beharko dute eremu komunetan.
- Txakurrek solte egon ahal izango dute aretoetan, kontrolpean eta bertaratu guztiak ados badaude.
- Txakurrek pertsona arduratsu batek lagunduta egon behar dute uneoro.
- Animalien presentziak eragindako bizikidetzaz arazoak sortzen badira, Partaidetza Zerbitzuko teknikariek erabakiko dute, alderdi guztiei entzun ondoren, txakurrek Elkarteen Etxeetan sartzen jarraitu ahal izango duten eta, hala bada, zein baldintza bete beharko dituzten.

4. Elkarteen Etxeen funtzionamendua

- 4.1. Elkarteen Etxeek “elkarte koordinatzaile” bat izango dute gertatzen diren egunerokotasuneko egoerak ebazteko, eta elkarte horren funtzio zehatzak behar bezala adostuko dira elkarteen eta Herritarren Partaidetza Zerbitzuaren arteko lehen bileran, 2024an. “Elkarte koordinatzaileak” 3 hilabetez beteko du eginkizun hori eta, hiru hilabeteak igaro ondoren, hurrengo elkarteari pasatuko dio txanda (hark eginkizun bera bete beharko du beste hiru hilabetez). Txanden sistema hori ere elkarteen eta Partaidetza Zerbitzuaren arteko 2024ko lehen bileran zehaztuko da.
- 4.2. Elkarte esleipendunen eta Herritarren Partaidetza Zerbitzuko talde teknikoaren arteko bileretan (3.1. puntuan zehazten direnak), Etxeen martxa orokorra berrikusiko da eta, funtzionamenduari eta erabilera-arauei buruzko proposamenak eta iradokizunak egingo dira; gainera, egokitzen diren diren gaiak ebatziko dira.



Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen saila.
Herritarren Partaidetzarako zerbitzua

Departamento de Gobierno Abierto y Centros Cívicos.
Servicio de Participación Ciudadana

5. Areto komunen funtzionamenduari buruzko araudia

- 5.1. Elkarteen Etxeek zenbait areto komun dituzte horiek erabiltzeko edo takila bat izateko baimena duten elkarteentzat nahiz horretarako baimenik ez duten baina aretoak jarduera puntualetarako (bilerak, hitzaldiak...) behar dituzten elkartei baliabide hori erabiltzen uzteko.
- 5.2. Elkarteen Etxeetako areto komunak jarduera puntualak egiteko erabiliko dira (bilerak, hitzaldiak, tailerrak...). Honako elkarte hauek erabili ahal izango dituzte:
- Gela erabiltzeko baimena edo takila duten elkarteek.
 - Baimenik ez duten elkarteek.
 - Dagokion erregistroan inskribatu gabe dauden plataformek eta taldeek, beren lan edo proiektu kolektiboa (proiektua, estatutuak, aktak, egunkari-zatiak...) ziurtatzeko nahikoa agiri aurkezten badituzte.
- 5.3. Areto komun erabilera motak:
- a_ Urteko erabilera puntualen kasuan, aretoa gehienez ere astean bitan erreserbatu ahal izango da urte naturalaren edo ikasturtearen hasieran, urtebetez.
- b_ Erabilera puntuala eta aldi behingoa bada, hiru hilez behin erreserbatu ahal izango dira aretoak, gehienez ere astean 3 aldiz erabiltzeko.
- c_ Erabilera intentsiboa, kontzentratua eta justifikatua egin nahi bada urteko garai zehatz batzuetan, aretoa hilabetez hilabete erreserbatu ahal izango da astean 5 egunetarako, gehienez ere ondoz ondoko 3 hilabetez zehar. Horren ondoren, beste 3 hilabete itxaron beharko dira beste erreserba bat egin ahal izateko.
- d_ Berariazko prestakuntza-jardueretarako edo informazio-kanpainetarako, behar diren egun guztiak eskatu ahal izango dira, bi aste gehienez ere. Horren ondoren, hilabete bat itxaron beharko da beste erreserba bat egin ahal izateko.
- e_ Aretoek libre egon beharko dute erreserba egin ahal izateko. Dagoeneko erreserbatuta dagoen areto bat eskatzen bada eta beste bat eskain badaiteke, Herritarren Partaidetza Zerbitzua kasuan kasuko elkarteekin jarriko da harremanetan.
- f_ Kasu guztietan, erreserba-eskaera hura erabili nahi den eguna baino **gutxienez 3 egun balioudun lehenago** egin behar da, honako hauek zehaztuz: zein Elkarte Etxe erreserbatu nahi den, zein egunetan eta ordutan erabili nahi den, zertarako erabili nahi den eta zenbat pertsonak parte hartuko duten. Eskabidea Herritarren Partaidetza Zerbitzuari bidaliko zaio eta hura arduratuko da Elkarteen Etxeetako areto komunak zuzenean erreserbatzeaz.



**Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen saila.
Herritarren Partaidetzarako zerbitzua**

*Departamento de Gobierno Abierto y Centros Cívicos.
Servicio de Participación Ciudadana*

- g_ Simone de Beauvoir, Rogelia de Álvaro edo Itziar Elkarteen Etxeak erabiltzeko baimena duten elkarte guztiek eskatu ahal izango dute SIMONE DE BEAUVOIR bilera-aretoa (Simone de Beauvoir Elkarteen Etxeko bigarren solairuan) noizean behin erabili ahal izatea, ekitaldi bereziatarako. Horretarako, zehaztutako prozedura erabiliko dute. Gasteizko Udalak instalazio horiek erabiltzeko lehentasuna izango du, astelehene-tik ostiralera.
- h_ Eskaerak aztertu ondoren, Herritarren Partaidetza Zerbitzuak erabakiko du nola banatuko diren areto komunak, eta elkarteei horren berri emango die. Halere, aldaketak egin ahal izango dira, eraginkortasun-eta antolakuntza-premiak direla eta.
- i_ Jarduera bukatu ondoren, erabilera komuneko aretoak txukun utzi behar dira, hurrengoek erabiltzeko moduan. Gainera, erabiltzaileek alarma piz-teaz eta ateak ondo ixteaz arduratu beharko dute.
- j_ Areto komunak ezin izango dira erabili abuztuan.

6. Organo arautzailea

- 6.1. Elkarte erabiltzaileek Herritarren Partaidetza Udal Zerbitzuaren jarraibi-deak bete beharko dituzte uneoro. Elkarte erabiltzaile bateko arduradunek ezarrita dauden erabilera-arauak betetzen ez badituzte, edo betearazteko neurriak hartzen ez badituzte, Herritarren Partaidetza Zerbitzuak egokitzat jotzen dituen proposamenak egingo ditu zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko, elkarte hori etxetik kaleratzea barne.

Zerbitzuak jarraian eta maiztasun jakin batekin erabiltzen ez badira, Herri-tarren Partaidetza Zerbitzuak berraztertu egingo du aretoa edo takila era-biltzeko baimena.
- 6.2. Herritarren Partaidetza Zerbitzuko langile teknikariek instalazioetan sartu ahal izango dute Etxearen erabileraren eta egoeraren jarraipen egokia egi-teko, hura erabiltzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen direla bermatze aldera.
- 6.3. Elkarte erabiltzaileen artean desadostasunak sortzen badira Etxearen fun-tzionamenduarekin lotuta edo elkarteren batek araudia betetzen ez due-lako, Herritarren Partaidetza Zerbitzuari jakinaraziko zaio, hark beharrezko neurriak har ditzan.